

EUSKAMPUS FUNDAZIOA
2016ko Auditoriaren Txostena

URTEKO KONTUEN AUDITORIA INDEPENDENTEARI BURUZKO TXOSTENA

Euskampus Fundazioaren Patronatuari

ETEen urteko kontuen auditoriari buruzko txostena

Euskampus Fundazioari atxikitako ETEen urteko kontuen auditoria egin dugu, eta kontu horietan sartzen dira 2016ko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitzen kontua eta memoria.

Patronatuko kideen erantzukizuna urteko kontuei dagokienez

Patronatuko kideen erantzukizuna da atxikitako ETEen urteko kontuak egitea, Euskampus Fundazioaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi zehatza adierazteko moduan, betiere erakundeari Espainian aplikatu beharreko informazio finantzarioaren arau esparruari –atxikitako memoriaren 2. Oharrean identifikatuta dago– jarraikiz eta beharrezko iritzitako barne kontrolaren arabera, urteko kontuak iruzur edo huts-egiteren batek eragindako akats materialik gabe prestatu ahal izateko.

Auditorearen erantzukizuna

Gure erantzukizuna da atxikitako ETEen urteko kontuei buruzko iritzia ematea, gure auditorian oinarrituta. Kontuen auditoriak arautzen dituen araudiari dagokionez, Espainian indarrean dagoenari jarraikiz egin dugu gure auditoria. Araudi horrek etikako eskakizunak betetzea eskatzen digu, baita auditoria planifikatu eta egitea ere, ETEen urteko kontuetan akats materialik ez dagoelako zentzuzko segurtasuna lortze aldera. Auditoria bat egiteko, ETEen urteko kontuetan azaltzen den informazioari eta zenbatekoei buruzko auditoriaren ebidentzia lortzeko prozedurak aplikatu behar dira. Hautatutako prozedurak auditorearen iritzia araberakoak dira, baita urteko kontuetan iruzur edo huts-egiteren batek eragindako akats materialak izateko arriskuen balorazioa ere. Arriskuaren balorazio horiek egitean, erakundeak ETEen urteko kontuak egiteko garrantzitsutzat hartzen den barne kontrola izaten du kontuan auditoreak, egoeraren arabera egokiak diren auditoria prozedurak diseinatzeko helburuarekin, ez erakundearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko. Auditoria batean sartzen da, halaber, honako alderdi hauek ebaluatzea: aplikatutako kontularitza politiken egokitasuna, zuzendaritzak egindako kontularitzako estimazioak zentzuzkoak izan ote diren, eta urteko kontuen aurkezpena, oro har. Lortu dugun auditoriaren ebidentziak eman digu, gure ustez, auditoriari buruzko gure iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia, salbuespenak salbuespen.

Iritziaren oinarria, salbuespenak salbuespen

Atxikitako urteko kontuen memoriaren 13. oharrean, fundazioak urte osoan egin dituen jarduerak deskribatu ditugu, eta jarduera horietarako erabili diren baliabideak eta baliabide horien finantzabideak kuantifikatu ditugu. Erabilitako baliabideei dagokienez, langile gastuen kapitulua nabarmentzen da; egindako jarduera guztietarako 684.742 euro dira, ETEen memoriaren 14. oharrean jasota dagoenez. Langile gastuak jardueren artean banatzeko, fundazioaren Zuzendaritzak egindako estimazioetan oinarritzen da. Ezin dugu egiaztatu langileek benetan jardun ote duten erreferentziako jarduera horietan, Euskampus Fundazioak ez baitu lanaren kostuak eta denborak kontrolatzeko eta egozteko sistema egiaztagarrik.

Iritzia, salbuespenak salbuespen

"Iritziaren oinarria, salbuespenak salbuespen" paragrafoan deskribatu dugun egintzak izan ditzakeen ondorioak salbu, gure ustez, atxikitako ETEen urteko kontuetan Euskampus Fundazioak 2016ko abenduaren 31n zuen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi zehatza adierazten da, alderdi adierazgarri guztietan, baita data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitzen ere, betiere informazio finantzarioari buruz aplikatu beharreko arau esparruari eta, zehazki, araudi horretan bildutako kontularitzako irizpide eta printzipioei jarraikiz.